[Eusk/Cast] Disidentzia sexualaren aktibazioa

ANTOLAKETAN SALTO! :: 20/01/2015

El 31 de enero, vamos a poner en marcha, toda la maquinaria para la revolución sexual. La activación de la disidencia sexual

Orain bi urte hasi genuen sexu askapenerako gazte mugimenduaren eratze prozesua; antolakunde berria sortzeko helburuarekin. Erabaki hori hartzera, egoera sozio-politikoaren aldaketak eragin zuen; baita heteropatriarkatuaren kontrako borrokan proiektu politiko ausarta garatzearen beharra ere.

Ez dugu planteatu homosexualen bizi kalitatea hobetzeko proiektu bat.
Jendarte osoaren askapen prozesu bat da mahai gainean jarri nahi izan duguna: Sistemak, gainontzeko guztia kontrolatzeko, gure sexualitate, gorputz eta identitateak kontrolatu behar dituelako lehenik eta behin.
Kontrol hori ahalbidetzen dituzten hiru erregimen politikoei aurre egiteko proposamen politikoa garatu dugu. Sistemaren kontrako proiektu politiko iraultzailea da bi urte hauetan eztabaidatu duguna.

Orain, proiektu hori bidean jartzeko unea da. Horretarako, urtarrilak 31, arratsaldeko 17:00etan, sexu askapenerako gazte antolakunde berriaren aurkezpen ekitaldira gerturatzeko gonbitea luzatu nahi dugu, Bergarako Kartzela Zaharrean.

Antolakundearen aurkezpena hirietatik kanpo egitearen erabakia, proiektu hau Euskal Herrian barna hedatzearen apustuaren seinale da.
Eskualdez eskualde, indarrak batzea dugu helburu. Orain arte bezala, eskualdeen asanbladetako autonomia bermatuz eta partaide guztiak gidari bihurtuz. Kartzela Zaharra aukeratu dugu, kartzelen desagerpena, aldarrikapen inportante bezala kokatu dugulako. Txantaje moduko betiereko ultimatum bat suposatzen dutelako. Saltzen diguten helburua betetzen ez dutelako. Azken egunotan berriro ere agerian geratu den bezala, disidentzia politikoa zapaltzeko erabiltzen delako. Eta Bergarako Kartzela Zaharra aukeratu dugu, espazio autogestionatu eta Gaztetxeen aldeko gure apustu estrategikoa irudikatzeko.

Urtarrilaren 31n, martxan jarriko ditugu iraultza sexualaren aldeko makinaria guztia. Disidentzia sexualaren aktibazioa. Subjektu politiko iraultzaileak bilakatu. Etorkizunean, atzo bezala, haustura berrien protagonistak izateko.

Hace dos años, dimos inicio al proceso constituyente del movimiento juvenil para la liberación sexual, con el objetivo de crear una nueva organización. A tomar esa decisión, nos empujaron los cambios socio-políticos y económicos habidos por una parte; así como la necesidad de desarrollar un proyecto político decidido contra el heteropatriarcado.

No hemos planteado un proyecto para mejorar la calidad de vida de las homosexuales. Hemos querido poner encima de la mesa, un proceso de liberación para toda la sociedad. Porque para que el sistema pueda controlar todo lo demás, primero tiene que controlar

nuestra sexualidad, nuestros cuerpos y nuestras identidades. Hemos desarrollado un proyecto político, que haga frente a los tres regímenes políticos que posibilitan el control social. Es un proyecto político anti sistema lo que hemos debatido durante estos dos años.

Ahora, es momento de poner ese proyecto en el camino. Para ello, hacemos un llamamiento a acudir al acto de presentación de la nueva organización, que tendrá lugar el 31 de enero, a las 17:00, en la Antigua Cárcel de Bergara.

Realizar la presentación de la organización fuera de las ciudades, es señal de una apuesta clara por extender el movimiento por toda Euskal Herria. Tenemos el objetivo de aunar fuerzas comarca a comarca.
Impulsando la autonomía de las asambleas comarcales, como lo hemos hecho durante estos dos años. Impulsando la participación en la toma de decisiones. Hemos elegido la Antigua Cárcel, porque la desaparición de las mismas es una apuesta importante para nosotras. Porque supone un continuo chantaje en forma de ultimátum. Porque no realizan la labor que nos venden. Porque se utilizan para la represión de la disidencia política, como hemos visto estos últimos días. Y hemos elegido la Antigua Cárcel de Bergara, porque los Gaztetxes y espacios auto gestionados, forman parte de nuestra apuesta estratégica.

El 31 de enero, vamos a poner en marcha, toda la maquinaria para la revolución sexual. La activación de la disidencia sexual. Su conversión en sujetos políticos revolucionarios. Para que en el futuro, como fue en el pasado, sean protagonistas de grandes rupturas.

---

https://eh.lahaine.org/eusk-cast-disidentzia-sexualaren-aktibazioa